



GARDENTASUNAREN EGOERA

GASTEIZKO UDALAREN PUBLIZITATE AKTIBOAREN ETA INFORMAZIO
PUBLIKORAKO SARBIDEAREN ARLOKO BETEBEHARRAK BETETZEARI
BURUZKO TXOSTENA – 2019 EKITALDIA -
VITORIA-GASTEIZKO UDALA




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Gardentasunaren eta Edukien Atala
2020ko apirila



Erakundeari, antolakuntzari eta plangintzari buruzko informazioa
Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa
Informazio ekonomikoa, aurrekontuari buruzkoa eta estatistikoa
Langileei buruzko informazioa
Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa
Beste zenbait alderdi
Informazio publikoa eskuratzea
Gardentasuna-atariari egindako bisitak
Ondorioak



Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 66. artikulua ezartzen duenez, lehen hiru hilabeteetan **txosten bat egin behar da Udalak publikitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen inguruan aurreko ekitaldian izan zuen betebeharren betetze-mailari buruz.**

Txosten honek Udalaren **publizitate aktiboko praktiken xede diren 52 informazio-item** identifikatzen ditu, gardentasunaren arloan indarrean dagoen lege-esparruan oinarrituta. Gainera, informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen erabilerari eta gardentasun-atariari buruzko estatistikak jasotzen ditu: www.vitoria-gasteiz.org/gardentasuna.

Gasteiz, 2020ko apirilaren 3an

Erakundeari, antolakuntzari eta plangintzari buruzko informazioa

Epigrafe honetan, erakundeari, gobernu-organoei, langile hautetsiei eta konfiantzazko langileei eta kudeaketaren plangintzari buruzko informazioarekin zerikusia duten **15 informazio-item** biltzen ditugu.

% 93

14/15 argitaratuak

% 7

1/15 argitaratu
gabe

% 13

2/15 hobetu
daitekeena

Ez da betetzen "urteko eta urte anitzeko planak eta programak" argitaratzea, Legeak ezartzen duen moduan. Gainera, zinegotzien dedikazio-portzentajea ez da berariaz argitaratzen, eta ez da zuzendaritza-postuetan aritzeko eskatzen den profilaren berri ematen.

Garrantzi juridiko-normatiboko informazioa

Udal-araudiari, kontsulta-organoen txostenei, partaidetza-prozesuei eta abarri buruzko informazioarekin zerikusia duten **8 informazio-item** identifikatzen ditugu.

% 63

5/8 argitaratuak

% 27

3/8 argitaratu gabe

Ez dira berriaz argitaratzen zuzenbidearen interpretazioa dakarten edo ondorio juridikoak dituzten udal-organoei hartutako erabakiak, ezta Urteko Araugintza Plana eta arau-testuak egiteko espedienteak osatzen dituzten memoriak eta txostenak ere (bereziki, arau-eraginaren azterketaren memoria).

Informazio ekonomikoa, aurrekontuei buruzkoa eta estatistikoa

Atal honek kudeaketa ekonomikoarekin lotutako **16 informazio-item** dakartza (aurrekontuak, kontratuak, adierazle ekonomikoak, ordainsariak, hitzarmenak, inbentarioak...). **Datu irekiak** izan daitezkeen itemak dira.

% 88

14/16 argitaratuak

% 12

2/16 argitaratu gabe

% 6

1/16 hobetu daitekeena

Ondasunen udal-inbentarioa eguneratu gabe dago, eta "zerbitzu publikoen betetze-maila eta kalitatea baloratzeko beharrezko informazio estatistiko" gisa identifikatutako itema ez da horrela zabaltzen. Hitzarmenen hedapena hobetu liteke, horien testu osoa argitaratuz gero (ez da kasu guztietan egiten).

Langileei buruzko informazioa

Langileei buruzko **4 informazio-item** espezifiko daude: enplegu-eskaintzei buruzko informazioa, ikastaroak eta prestakuntza, ordezkaritza sindikala eta lanpostuen zerrenda (LPZ), eta hori da hobetu daitekeena.

% 100

4/4 argitaratuak

% 25

1/4 hobetu daitekeena

Administrazio-antolamenduari, plantillaren egiturari, antolaketa-dekretuei eta ordezkaritza sindikalari buruzko informazio guztia legeen arabera argitaratzen da. Langileei prestakuntzari buruzko datuak ematen zaizkie (datu irekitan), eta Langileen Zerrenda eta soldata-taulak zabaltzen dira; hala ere, ez dago LZ ulertzeko aukera ematen duen koadro sinoptiko argirik.

Politika publiko lokalei eta zerbitzu-zorroari buruzko informazioa

Herritarrei hainbat eremutan ematen zaien zerbitzu-zorroari (kostua, ordutegiak, prezio publikoak) eta zerbitzu-kartei buruzko informazioa emateko konpromisoa hartzen duten **4 informazio-item** identifikatu dira.

% 100

4/4 argitaratuak

% 50

2/4 hobetu daitekeena

Tokiko politika publikoen esparruan emandako zerbitzuei buruzko beharrezko informazioa ematen da, eta herritarrei arreta emateko lan proaktiboa egiten da zerbitzu horien esparruan; hala ere, zerbitzuen katalogoaren proiektu geldiaraziak informazio hori hobetuko luke, eta udal-kalitatearen politikari buruzkoa urria eta eguneratu gabea da.

Beste zenbait kontu

Kasu honetan, **informazio orokorreko 5 item** aipatzen dira gardentasun-atariari, herritarrentzako arreta-kanalen hedapenari, herritarrekiko harremanetarako espazio bati eta partaidetza-sistema bati buruz...


% 100

5/5 argitaratuak

2019an, herritarren arreta online aldatu eta hobetuko duten bi proiektu definitzen jarraitu da: webgunearen egitura eta nabigazioa birplanteatzea, eta herritarren postontzia berritzea, parte hartzeko eta herritarrekin hitz egiteko tresna gisa duen zeregina sustatzeko.

Informazio publikoa eskuratzea

	2019
Jasotako eskabideak	56
Emandako erantzunak	44 (% 78)
Epe barruan emandako erantzunak	19
Onetsitako eskabideak	29
Partez onetsitako eskabideak	3
Ezetsitako eskabideak	1
Erantzuteke (urte bukatzean)	14




Azken urteetako goranzko joerari eutsi zaio informazio publikoa eskuratzeko eskaerei dagokienez, baina erantzunen ehunekoa murriztu egin da. Datu negatibo gisa, adierazi behar da ekitaldia amaitzean 14 eskaera erantzun gabe geratu zirela, eta 2018an, berriz, 3.

Gardentasun-atarira egindako bisitak

	Bisita-kopurua	Orri-ikuskapen bakarrak	Zeharka ikusitakoen ehunekoa
Udalaren webgunea	9.548.752	6.439.497	% 48,94
Gardentasun-ataria (hasiera)	9.014	6.585	% 24,58
<i>Elkarren arteko erlazioa</i>	<i>Guztien % 0,09</i>	<i>Guztien % 0,10</i>	<i>% 49,78 gutxiago</i>
Antolakuntza politikoa	5.067	2.934	% 14,66
Administrazio-antolakuntza	4.302	2.447	% 34,90
Ekonomiarekin eta finantzazioarekin lotutako informazioa	1.506	925	% 30,51
Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak	509	360	% 25,00
Goi-karguen ordainsariak	1.980	1.491	% 55,75
Udal langileak	5.378	3.907	% 48,90
Jardueren eta ondasunen erregistroa	8.637	649	% 27,43
Datu irekien ataria (hasiera)	4.191	2.799	% 37,94

Gardentasun-atarira egindako bisitak, bai orri nagusira bai gaikako orrietara, aurreko ekitaldietako mailetan mantentzen dira. Eduki zehatzei dagokienez, antolaketarekin eta langileekin lotutakoak nabarmentzen dira; uste dugu abian den 2018-2019ko Lan Eskaintza Publikoa dela eta...

Ondorioak



2019an publizitate aktiboaren legezko betekizunak betetzen jarraitu da, eta, termino kuantitatiboetan, txostenaren I. eranskinean identifikatutako itemen % 90 inguru argitaratu da. Fokua II. eranskinean identifikatutako item guztietara zabalduz (gardentasun-atarian aktiboki zabaltzen diren gaiak barne hartzen ditu, baita webgune orokorrean ere), eta zenbait administrazio-ekitaldiren mendeko adierazleak kontuan hartu gabe (aurrekontuaren itxierarena, adibidez), betetze-maila zertxobait handiagoa da (99 itemetatik 96).

Txosten honek aipatzen duen ekitaldian, zenbait gai eguneratu gabe daude (batzuk zirkunstantziaz, hala nola ekonomia-eta aurrekontu-adierazleak; beste batzuk sakonago, ondasunen inbentarioa, adibidez), baina oraindik ere betetzen ez diren publizitate aktiboko baldintzak daude: ez ondorio juridikoak dituzten udal-organoei hartutako erabakiak, ez arau-eragina aztertzeko memoriak, ez eta, azkenik, Urteko Araugintza Plana ere. Baldintza horiek ez dira betetzen urteko azterketa egiten denetik.

Hobekuntzaren esparruan, oraindik ere badago zer egin, 2019an hainbat proiektu birdefinitu behar izan baitira (hizkera argia edo zerbitzuen katalogoa, adibidez), baina beste proiektu batzuetan aurrera egin da (Open Data, OGP Euskadi proiektua, aurrekontuen atari grafikoa, kontuak ematea).